



Medikuak aholkatuta hasi eta gustua hartu zioten igeriketari Josune Odriozolak, Richard Oribek eta Ander Romaratek. ANDONICANELADA / ARGAZKI PRESS

Richard Oribek, Josune Odriozola eta Ander Romarate egunero entrenatzen dira euren ezintasunei aurre egiteko; Espainiako igeriketa egokituko txapelketa jokatu dute asteburuan

Ezintasunen aurka igerian

Maialen Unanue

Kirola egitea ariketa fisiko egitea hutsa baino zerbait gehiago da ezindu fisikoentzat. Medikuek gomendatuta, txikitzen hasten dira gehienak kirolean, gorputzaren onerako lanean. Batzuek halaberrez jarraitzen dute, baina beste batzuk zale bihurtzen dira, eta aisialditik baino profesionaltasunetik gehiago duen ariketa bihurtzen dute kirola. Hori da, adibidez, Ander Romarate, Josune Odriozola eta Richard Oribek igerilarien kasua. Espainiako estatu mailako igeriketa egokituko txapelketan parte hartu dute hirurek asteburu honetan, Donostiako Paco Ioldi igerilekuan.

Odriozola Oñatikoa da (Gipuzkoa), eta hiruretan gazteena da: 17 urte ditu, eta batxilergoko lehenengo maila ikasten ari da. Eskolara joan aurretik, baina, herriko kiroldegian entrenatzen da: «Goizeko seietan joaten naiz egunero entrenatzera, ordu eta erdi, eta gero zuzenean eskolara joaten naiz. Horrela, arratsaldeetan badut denbora lanak egin edo ikasteko». Asteburuko txapelketari begira, urduri dago Odriozola. Hiru probetan parte hartuko du, eta oraingo, denbora markak txikitzea du helburu: «Prestatuta ikusten dut neure burua, baina beldur pixka bat izaten da beti». Gustura ibiltzen da Odriozola igeri: «Kirol moduan serio hartzen dudun arren, *hobby*-a ere bada niretzat. Lagunak egiten dituzu, hainbat leku ezagutzeko aukera

ematen dizu...». Donostiako Konporta kirol elkartearen dabil, baina Oñatikoa Aloñamendi kirol elkarte igeriketa taldearekin entrenatzen da maiz; nahiz eta talde hori ez den, berez, ezindu fisikoek osatutako taldea. Bederatzi urterekin hasi zen lehiaketetan parte hartzen, eta gaur egun, biekin jotzen da txapelketetara.

Eibarkoa (Gipuzkoa) da Romarate, eta gaztea izan arren —19 urte beteko ditu ekainean—, bi diploma olimpiko ditu etxean. Londrestiko Paralimpiar Jokoetan irabazi zituen iaz, bizkar estiloko 100 metrokoan eta 4x100 metro estiletan. Hilabete batzuk pasatu dira orditutik, eta «ia ahaztuta» dauzka diplomak. Izan ere, Londrestik itzulita, ebakuntza egin zioten, eta horrek guztiz harrapatu du Romarateren goztoa azkenaldian. Errehabilitazio prozesua pasatuta, gimnasioan ibili zen, eta duela hilabete eta erdi hasi zen uretan entrenatzen berriz ere. Ebakuntza aurretik zuen sasoiaren errekuperatzea du orain buruan: «Hiru hilabete edo beharko ditut berriz ere lehengora iristeko. Baina beste ezer baino lehenago, ondo sendatzea da garrantzitsua; gero etorriko dira gerokoak». Asteburuko txapelketa, beraz, autoebaluzioa egiteko baliatuko du Romaratek: «Entrenamendu falta handia daukat, hilabete eta erdi ez baita nahikoa halako proba bat egiteko. Uretan nabilela ondo sentitzea da helburua, eta bide onetik noala uste dut».

Odriozola bezala, Romarate ere txikitatik hasi zen igerian, 4 urterekin, medikuak aholkatuta. Ur-

teak igarota, errendimendu talde moduko batean sartu eta txapelketetan parte hartzen hasi zen: «Gero eta gusturago sentitzen nintzen, eta emaitza onak lortzen nituela ikusita, gehiago motibatua nintzen». Gaur egun, Romaratekin hasi zen lehiaketetan parte hartzen du igeriketarako, egun bakoitzeko ordu asko, eta dioenez, asko laguntzen dio igeriketarako hanketan duen arazoarekin.

Hamabost igerilari dira Kon-



Goizeko seietan joaten naiz egunero entrenatzera, eta gero zuzenean eskolara»

JOSUNE ODRIOZOLA
igerilaria

«Hiru hilabete edo beharko ditut lehengora iristeko; ondo sendatzea da garrantzitsua»

ANDER ROMARATE
igerilaria

«Ezin dizkiozu zeure buruari traba are gehiago jarri. Ahal dudun gehiena lortzen saiatu naiz beti»

RICHARD ORIBE
igerilaria

portako kide, ezintasunen bat dutenak. Kirol elkarte hori da, hain justu, Oriberen taldea: Javier de Aymerich entrenatzailearekin batera sortu zuena. Haren ibilbideari erreparatuta, erraz ulertzen da Oribe askoren erreferente bihurtu izana. Odriozola eta Romarate bezala hasi zen

Oribe ere igeri egiten; nekez pentsatuko zuen urte batzuk geroago noraino iritsiko zen. Paralimpiar Jokoetan bakarrik hamazazpi domina irabazi ditu: urrezko bederatz, zilarreko sei eta brontzezko bi. Munduko txapelketetan, hemezortzi: urrezko zortzi, zilarreko zazpi eta brontzezko hiru.

Asteburuko txapelketan parte hartuko du Oribe, baina etxean delako bakarrik. Izan ere, duela hilabete batzuetatik mina du sorbalan: «Orain hobeto nago, baina ezin izan naiz behar bezala entrenatu». Eta, dena den, «hiruzpalau» domina eta Euskadiko selekzioarentzako hainbat puntu eskuratzeko itxaropena du. Guztiz osatzea da Oriberen helburu nagusia. Lortzen badu, mailarik gorenean lehiatzen jarraituko du, eta lortzen ez badu, entrenatzaile lanetarako prestatzen jarraituko du: «Hainbeste eman didan kirolean jarraitu nahi dut, orain artean ikasi ditudanak atzetik datozenei erakusten».

Igeriketarako gauza asko eman dizkio Oriberri urteetan. Osasuna zaintzeko modua baino gehiago izan da Oriberentzat: «Norbere garapenerako tresna da, gozatze modu bat, baita inguru sozial batean parte hartzekoa ere».

Egun bakoitzean borrokatu da Oribe aurrera egiteko, eta horretarako, nor bere buruari helburuak markatzeko garrantzia azpimarratu du: «Mugatze askorekin jaio nintzen, baina ezin dizkiozu zeure buruari traba are gehiago jarri. Ahal dudun gehiena lortzen saiatu naiz beti».

1813ko sutetik Donostian izandako 4.000 gertaera bildu ditu Agirrek

Aztertutako agirien artean Victor Hugok hiriko euskarari buruz idatzitako testu bat dago

Erredakzioa

Urte urte, 1813tik gaur arte Donostian izandako 4.000 gertaera aztertu ditu Rafael Agirre idazleak *Donostia San Sebastian 1813-2013. Hiriairen sute eta berreraikuntzaren bigarren mendeurrena* liburuan. Hiria suntsi zuen gertaeraren bigarren mendeurrenaren harira argitaratu dute.

Agirrek adierazi duenez, «200 urte horietako hiria historia ulertzeko liburua egokia» da honako hau. Hilketak, istripuak, auzotako gertaerak eta udalaren tirabirak dira Agirrek bildutako gertaerako batzuk. Idatzita dagoen historian emakumeen presentzia zein txikia den azpimarratu du Agirrek liburua aurkezpenean. Euskarari dagokionez ere, arreta erakarri dioten hainbat kontu aipatu ditu; antza denez, Victor Hugo idazleak hirian zenbat euskara entzuten zuen aipatu zuen haren idatzietan.

Gaiaren arabera sailkatu ditu Agirrek gertaerak, eta 150 sarrean banatu ditu. Material grafikoa presentzia nabarmena du liburuan, argazki, plano, grabatu eta margolan ugariren bitartez ilustratu baititu.

Memoria berreraikitzen

Agiritegi eta hermetiketan murgildi da Agirre lan hori egiteko dokumentazio bila, hainbat autoreren lanak ere kontsultatu ditu. Funts grafikoetan eskuratu ditu irudiak. Din A-4 formatuan, 330 orrialdeko liburua osatu du, eta euskaraz eta gaztelaniaz argitaratu, Kutxaren Gizarte Ekin-tzaren bidez. Kutxa Fundazioaren Dr. Camino Institutuaren *Donostiako Gaiak* bilduman argitaratu dute.

Liburuaren aurkezpenean, Xabier Iturbe Kutxa lehendakariak Donostia berreraiki zuten herritarrek erakutsitako «borondate eta kemen izugarria» nabarmendu ditu.

Suteak dokumentu ugariren galera ekarri zuen, eta gertaeraren bigarren mendeurrenaren hainbat liburua argitaratu dituzte horrekin lotuta. Orain arte donostiar askorentzat ezezaguna izan den orduko errealitatea hurbilaztea da helburua, eta Agirreraren liburua horren adibide da.